

Babarrunaren lehiaketarik ez egitea erabaki du udalak

Jende pilaketak saihesteko hartu dutela erabakia adierazi du Olatz peon alkateak; inauteriak une honetan egokituko balira ez litzatekeela posible horiek ospatzea esan du // 2

Estres linguistikoak duen eragina aztertu du Galtzaundik

Imanol Artola Galtzaundiko kideak esan du taldean elkartzeak estresa murrizten duela, eta ondorioz, bizi kalitatea hobetu // 5

«Basapiztiak bezala ibiltzen ginen amildegi eta harkaitzetan»

IÑAKI ZUBELDIA
IDAZLEA


1966. urtean Jesus Manuel Maroto lagunarekin batera Arrikruzko leize-zuloan hezurdura handi bat aurkitu eta galdu zireneko istorioa du oinarrian ikaztegietarrak kaleratu duen azken liburuak // 4



Tolosako Ekinbide Etxeko kideak eta jaialdia babesten duten erakundeetako ordezkariak, atzoko aurkezpenean. I.T.

26 talderen lanak erakutsiko ditu Titirijai jaialdiak

Azaroaren 20tik 28ra izango da 39. Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia; haur txikiei zuzendutakoak nahiz helduentzako antzezlanak, erakusketak eta jardunaldiak izango dira // 3



**ZATOZ EUSKALTELERA
AZAROAN ETA ESKURATU
NETFLIX DOAN.**

Ez al duzu ikusi behar **El Juego del calamar?**
Tolosa eta Beasaingo dendetan izango gaituzu.

*Eskaintzak epe-muga dauka

Babarrunaren lehiaketak bertan behera utzi dituzte

Larunbatean babarrunaren bueltan ospatzekoak ziren ekoizleen lehiaketa eta lehiaketa gastronomikoa ez dituzte egingo «zuhurtziagatik eta arduragatik»

Erredakzioa Tolosa

Osasun sailak COVID19aren aurka hartutako neurri berriaren aurrean Tolosako Udalak larunbateko babarrunaren festa bertan behera uztea erabaki du. Aurten lehiaketa gastronomikoa bakarrik egin behar zituzten, baina horiek ere bertan behera uztea erabaki du.

Olatz Peon alkateak nabarmendu du ez dela lehen aldia ekitaldiak bertan behera utzi behar izan dituztela pandemiaren ondorioz eta Tolosa Goxua, Mikologika, Haragi, edota Inauteriak aipatu ditu. «Tolosarren osasuna bermatzea da lehentasun bakarra» berretsi du, «bizitza baitago jokoan». Gauzak horrela, «zuhurtziagatik eta arduraga-

tik», larunbatean Trianguloa plazan egitekoa zen Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketa ez dute egingo, eta ezta ere Alondegian egitekoak ziren eta Gure Kaiola elkarteak antolatzen duen Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa ere. «Babarrunaren Eguna, festarako eguna izan ohi bada ere tolosarrontzat, aurten ere ez da festarik izango, neurri guztiak bermatuta antolatutako ekintza sinbolikoak ere ez dira gauzatuko zuhurtziagatik, eta horrexegatik, herritarrei ere erantzunkidetasunez eta ardurarekin jokatzeko eskatzen diegu guztion osasuna babesteko». Datozen egunetarako antolatutako ekintza guztiak indarrean dauden neurriak jarraituta antolatu direla gaineratu du era berean,

teko lehiaketak ez egitea erabaki dutela. Inauteriak egitearen alde azaldu zen udala duela hilabete inguru, baina momentuko egoera aztertuko dutela eta horren arabera jokatu duela esan du alkateak, «momentu batean ikusi genuen egin ahal zela, baina gaurko egoerarekin ez litzateke posible izango».

Eragileen lana nabarmendu duzu.

Herriko eragileek sekulako lana egiten dute ekitaldiak antolatzen eta unean uneko neurriak jarraituz egiten dute, eta oraingo honetan unean uneko egoerak dio jende pilaketak eragin ditzakeen ekitaldiak ekidin behar direla. Nekea ekartzen du honek, baina erabakia zuhurtziaz hartu da eta eragileak lanean jarraitze-ko prest daude, unea hau ez bada ere.

Larunbatean lagunen arteko bazkariak egongo dira, hala ere.

Behin eta berriz ari gara errepi-
katzen; egiten ditugun jarduera



2019ko Babarrunaren Festako artxiboko irudi bat. I.S.A.

baina eragileekin hitz egin eta gero adostasunez erabaki dutela larunbateko lehiaketak bertan behera uztea.

OHIKO AZOKA, AURRERA

Izango dira hala ere, mantenduko dituzten jarduerak: larunbateko ohiko azoka, Nogēn taldea-

ren biharko kontzertua, astelehenean Musika Bandak Xexili Eguna dela eta egitekoa den kalejira, esan dute azken honetan ordea ez dutela geldialdirik egingo, eta azaroaren 28an Beotibar pilotalekuan jokatu duen Euskadiko Aizkolari Txapelketa-ko saioa.

guztiak neurriak errespetatuta egin behar dira, hau da pertsonen arteko distantziak mantenduta, maskararekin... Osasun sailak argi esan du jende pilaketak saihestu behar direla, eta udaletik hori errepikatu behar dugu. Udaletik mantendu ditugun ekitaldi guztiak neurriak bete ahal diren lekuetan dira, arriskurik gabeak. Horietakoak mantentzeko arazorik ez dago, baina bazkari horietan maskara kendu beharko dute jateko, eta neurriak mantendu behar dira; aireztapena, distantziak... eta jaten ez gaudenean maskara jarrita izan beharko dute.

Duela gutxi inauteriak egitearen alde azaldu zen udala, erabakia aldatu daiteke?

Inauteria oso festa handia da eta denborarekin prestatu behar da, ezer egitekotan denboraz hasi behar da lanean, eta erabaki horiek hartzen dira beti momentuan dagoen egoeraren arabera, horregatik da horren zaila aurreikuspenak egitea. Momentu

batean ikusi genuen egin ahal zela, baina gaurko egoerarekin ez litzateke posible izango. Datorren urteko inauteriei buruz esan genezakeen gauza bakarra da, momentuan dagoen egoeraren arabera hartuko ditugula erabakiak.

Osasun sailak udalengan jarri du arreta eta egoerak kudeatzeko ardura dutela esan du. Zer iritzi duzu?

Erakundeen arteko elkarlana ezinbestekoa da, eta niri normala iruditzen zait udalerrian antolatzen diren jardueretan, bereziki udalak antolatzen dituenen, erantzukizuna udalarena izatea, gertuago gaudenez zaintza lan horiek hobeto egin ditzakegula. Bestetik, udalok gure artean sartzeko eta hitz egiteko gaitasuna izan behar dugu, nik Eibar-ko alkatearekin hitz egin dut San Andres azoka dela eta. Herrietan antzeko erabakiak hartzea da normalena, eta horregatik izan zen mezua argia: ez egin pilaketak ekarri ditzaketan ekitaldirik.

Irisgarritasuna hobetzeko lanei buruzko parte hartze prozesua egingo dute

Anoetako Udalak Isasti eta Hozpel kaleetan eta Errotalde auzoan inbertsioak egin nahi ditu

Jon Miranda Anoeta

Anoetako Udalak irisgarritasuna hobetzeko lanak egiteko asmoa du, Hozpel zein Etxaburu kaleetan eta Errotalde auzoan. Proiektuan herritarren iritzia egon dadin parte hartze prozesuak egingo ditu auzotarrekin.

Edozein proiektu martxan jarri baino lehen Anoetako Udalak ohitura du herritarrekin biltzeko, eta, horrela, bere asmoak azaltzen dizkie auzokideei eta zuzenean jasotzen ditu euren ekarpenak.

Datorren urtean herritarren beharrak asetzen jarraitzeko hainbat proiektu egin nahi ditu udalak, horien artean, herriko hainbat auzotan irisgarritasuna hobetzeko lanak egitea eta aisialdi-gune berri bat sortzea.

HAINBAT GUNETAN

Egitasmo horien harira jarriko dituzte martxan parte hartze prozesuak Anoetako zenbait gunetan, hain zuzen, Isasti, Hozpel eta Etxaburu kaleetan eta Errotalde auzoan.

Plazako obrarekin batera, inbertsio handienetako bat bideratu nahi du udalak aipatutako proiektu horietara.

Pello Estanga alkateak nabarmendu du «garrantzitsua» dela herritarren iritzia kontuan hartzea: «Edozein proiektu martxan jarri aurretik herritarrekin biltzea garrantzitsua da oso. Horrela euren iritzia jakin dezakegu eta hori kontuan hartuta diseinatu egitera goazena. Hori egitea ohitura bihurtu du Anoetako Udalak, eta oso aberasgarria da guztiontzat».

Dena ondo bidean parte hartze prozesuak hilabete honetan jarriko dituzte martxan, eta gutxi gorabehera otsaila bitarte iraungo dute. Esan bezala, bi egitasmo landuko dituzte: Isasti, Hozpel eta Etxaburu kaleetan zein Errotalde auzoan irisgarritasuna hobetzeko lanak egitea – eta bidez batez ur-horniduraren zein saneamenduaren hodiak berritzea–; eta ikastolaren eta Laxar-be erreka-artearen artean aisialdi-gune berri bat egitea.

«Momentuan dagoen egoeraren arabera hartuko ditugu erabakiak»

OLATZ PEON ORMAZABAL
TOLOSako ALKATEA

Iñigo Terradillos Gaztañaga
Tolosa

Tolosako alkateak esan du Osasun sailaren azken erabakiaren berri izan eta eragileekin bildu eta gero, jende pilaketak saihe-

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak. Interesdunek deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

Txotxongiloen festa hastear

Azaroaren 20tik 28ra bitarte hartuko du Tolosak Tirijai Txotxongiloen Jaialdia; haur, gazte nahiz helduentzako ikuskizunez, jardunaldiez nahiz erakusketez gozatu ahalko da

Iñigo Terradillos Gaztañaga

Titirijai, udazkeneko ohiko hitzordua bueltan da. Izaki bizigabeek bizia hartu eta istorio tradizional edo berrien protagonista bihurtzen dira, gaztetxoek nahiz helduen gozamenerako. 39. Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko jaialdiak txotxongiloen ikuskitzuna izango ditu, areto barruan nahiz kalean, eta horrekin batera, jardunaldiak eta erakusketak. Txotxongiloen munduan lanean ari direnei omenaldiak ere ez dira faltako.

Herrialde katalanak, Espainia, Portugal, Grezia, Frantzia, Argentina, Israel, Alemania edota Italiako jatorria duten konpainiak izango dira Tolosan larunbatetik, azaroaren 20tik, azaroaren 28ra bitarte. Guztira 26 konpainiak hartuko dute parte, askotariko ikuskitzuna eskainiz. Tamaina handiko, ertaineko eta txikiak, teknika desberdinak jorratzen dituztenak, hitzik gabekak nahiz txotxongiloek ahotza jartzen dietenak eta musikaz lagundurik egiten direnak ikusi ahalko dira taula gainean.

Familia osoari zuzendutakoak Topic-eko areto desberdinetan, nahiz Leidorren izango dira, eta horien artean, haur txikiei zuzendutakoak nabarmendu ditu Xabier Ormazabal Topic-eko zuzendariordeak: «Ikuskitzuna txikiak eta testurik gabekak dira, esaterako, Rauxa teatro kataluniarrek larunbat honetan eskainiko dutena, edota igandeko El Retablo madrildarrena».

2.000 IKASLE BAINO GEHIAGO

Helduei zuzendutakoak, berriz, Topic-en izango dira, asteleheneetik ostiralera 22:00etan, eta antzezlanen ostean, egileekin solasaldiak egingo dituzte. Helduen saioetan, astelehenean, hilaren 22an izango dena azpimarratu du Ormazabalek: «Unimak abian jarritako *Lau sorkuntza*, *lau kontinente* proiektutik sortutako antzezlanetako bi izango dira ikusgai. Afrika, Amerika, Asia eta Europako sortzaileek egindako lanak izan ziren proiektuaren emaitza, eta Tolosan Amerika eta Europakoak izango dira; azken hau burutze-



Tolosako Ekinbide Etxeko kideak eta jaialdia babesten duten erakundeetako ordezkariak, Titirijai aurkezten, atzo. I.T.

ko, gainera, Topic-eko egonaldi artistikoa baliatu zuten».

Azken urteetako ildoari jarraituz, kalera ere aterako da Titirijai. Kultur etxean eta Zerkausion jolas parkeak egingo dituzte, Berdura plazan mikroantzerkiak

Herrialde desberdinetako 26 konpainiak hartuko dute parte, askotariko ikuskitzuna eskainiz

eskainiko dituzte 20 minutuero eta bale erraldoi batekin kalejira egingo dute.

Ikastetxeetako ikasleei zuzendutakoek dagokionez, egunean bi izango dira, eta oraingoz 18 ikastetxek eman dute izena. Ia guztiak Gipuzkoak dira, eta 2.000 ikasletik gora espero dituzte. Haur epaimahaia ere izango da aurten, Tolosako hiru ikastetxeetako ikasleek osatua. Emanaldi guztiak ikusi ostean, azken emanaldiaren ondoren aukeratu duten irabazlearen izena esango dute.

Bestalde, Titirijairen erdigunea Tolosa izango bada ere, zirkuituaren bitartez, Eibar, Ordizia, Sestao, Pasaia, Zarautz, Hondarribia eta Amasa-Villabonan ere izango dira ikusgai antzezlanak.

JARDUNALDIAK

Titirijairekin batera, bi erakusketak berri irekiko dituzte Topic zentroan. Batetik, Anbiguan Lleidako txotxongilo zentroak binilozko diskoen eta txotxongiloen munduarekin lotutako erakusketak jarriko du. Bestetik, larunbatean, paperezko antzerkiaren historia erreperasaten duen aldizkako erakusketak inauguratuko dute.

Jardunaldiei dagokienez, aurtengo bosgarrenez Udazken eskola jarriko dute. *Obra bat, mila eta bat ikuskitzuna* izena du, 35 orduko iraupena izango du, eta bertan parte hartzeko izena eman beharko da. «Ikastaro berritzailea izango da, non tradizioa eta forma garaikidea uztartuko ditugun», azaldu du Ormazabalek.

Horrekin batera, Europako txotxongilolarien prestakuntzari eta profesionaltasunari buruzko gogoetak izeneko jardunaldiak ere antolatu dituzte. «Sona handiko Europako eta estatuko adituekin hausnarketarako aukera izango da».

Urtero moduan, omenaldierrakorako tarteak ere izango da Titirijain. Aurten, 25 urte bete dituen Madrilgo Teatralia jaialdia, 60 urte bete dituen Charleville-Mezières-eko txotxongilo jaialdia eta Dadi Pudumjee indiar txo-

txongilolaria izango dituzte go-goan.

ATZEKO LANA ESKERTU

Kepa Goikoetxea Tolosako Ekinbide Etxeko kideak horrelako jaialdi bat aurrera ateratzeko eginko lana goraipatu du Titirijairen aurkezpenean. Harkaitz Millan Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura diputatuak Topic zentroaren barrualdeko lana nabar-

menu du, eta datorren urtean urteurren borobila izango duela jaialdiak gogoratu du. Andoni Iturbe Eusko Jaurlaritzako kultur sailburuak, bere aldetik, kultura gustuko duenarentzat Tolo-

Jaialdirekin batera bi erakusketak izango dira ikusgai, eta bi jardunalditan parte hartu ahalko da

sara etortzea plazara dela aipatu du. «Kulturaren inbertitzea komunitate batean egin daitekeen inbertsio onuragarria da».

Olatz Peon Tolosako alkateak, berriz, Ekinbide Etxea zoriondu du egindako lanagatik. «Titirijaiak Tolosari asko eman dio, nazioartean Tolosak oihartzuna badu hein batean txotxongilo jaialdiagatik baita». Era berean, ekitaldi guztiak osasun neurriak «zorrotz» beteta egingo direla azpimarratu du.

Antolatzaileek nahiz ekitaldia babesten duten erakundeetako ordezkariak herritarrak oro animatu dute parte hartzera. Bertarako sarrerak dagoeneko eskuragarri daude, Topic zentroan bertan edota Topic-en webgunean.

Titirijaiako egitaraua eta informazio osagarria Ataria.eus-en eta biharko astekarian.



HERRIA GIROTZEKO

Urtero moduan, Titirijairi keinua eginez, Topic eta merkatarien elkartearen arteko elkarlanari esker txotxongiloak ikusgai daude Tolosako hainbat dendatako erakusleihoetan. Horrekin batera, San Frantzisko pasealekuan ohiko apaingarriak ere jarrita daude. N. ROLDAN DE ARANGUIZ

Eneritz Maiz

Iñaki Zubeldia idazle ikaztegi-tarrak liburu berria kaleratu du: *Lehoiaren atzaparretan galduta*. 1966. urtean Jesus Manuel Maroto lagun zuela Arrikruzko leizezuloan galdu ziren, eta lehoiaren eskeletoa aurkitu zutenekoa kontatzen du.

‘Lehoiaren atzaparretan galduta’. Benetako gertaeretan oinarritutako istorioa.

Nahiko nobela errealista da. Aspaldiko kontuak direnez, gauzak gutxi gorabehera esanda daude. Asko kontsultatu dut garai hartako jendearekin eta nire ingurukoekin, baina inor ez da gogoratzen noiz gertatu zen. Udazkena zela bai, eta 1966 zela bai, baina zein egun zen ez dakigu. Azaroa edo urria zen; hor behar zuen. Arantzazuko fraideei eta galdezka aritu naiz, eta fraideek ere ez dute gorde egun hori.

**Nobela idazterakoan, berri-
ere, bizipenak bizitu dituzu.**

Bai. Jada 55 urte dira. Liburua 55. urteurrena ospatuz atera da. Gutxi gorabehera bizipenak hor dauzkat, baina xehetasun batzuk ez dauzkat hain-hain argi. Kontsultak eginez berreskuratu ditut.

Liburua idatzi baduzu, bizipenak ez dira hain txarrak.

Egia esan nik izugarri ikasi dut bizipen horretatik, eta izugarriko probetxua atera diot. Niretzat Arrikrutzen galtzea opari handi bat izan da, zeren nire hiru edo lau liburutan zerbait azaltzen da; zertzelada txiki batzuk. Eskoletara joandakoan umeei beti kontatzen nien historia, nahiz eta beste liburu batzuei buruz aritu. Irudiak erakutsi, leize-zuloko misterioak, estalaktitak, estalagmitak, lehoiaz gain egin diren aurkikuntzak... Umeak txoratzten egoten dira honelako kontuak entzuten. Beti galdetu izan didate honetaz zerbait idatzi ote nuen, eta ezetz esaten nuenean beti ea noiz idatzi behar nuen izaten zen erantzuna.

Zurekin barruan egon zen Jesus Manuel Marotori galdetuz gero, iritzi bera izango du?

Maroto galduta izan nuen 40 bat urtean. Gu gazterik atera ginen Arantzazutik, eta Maroto lehenik Kamerunera joan zen. Valladolidekoa zenez bertan biziko zela pentsatzen nuen. Eta han nola aurkitu. Gero jakin nuen Gasteizen irakasle ote zegoen instituturen batean, eta nirekin etortzen zen liburuen komertziala, eta historia entzun eta Gasteizen bizi zenez telefonoen aurkibidea hartu eta bertan aurkitu zuen Jesus Manuel Maroto.



E. MAIZ

«Niretzat Arrikrutzen galtzea opari handi bat izan da»

IÑAKI ZUBELDIA IDAZLEA

‘Lehoiaren atzaparretan galduta’ liburu argitaratu berri du Iñaki Zubeldia idazle ikaztegi-tarrak; liburu Oñatiko Udalak argitaratu du gertaeraren 55. urteurrenean

Duela hamabi bat urte lokalizatu genuen, eta harrez gero askotan egon gara elkarrekin.

Baina bera ez da Arrikrutz leize-zulora itzuli.

Ez da itzuli, baina gizon oso paxadatsua eta lasai da. Oroimen oso politak dauzka, eta gustura entzuten ditu istorioak eta gustura ikusten ditu irudiak, baina ez da itzuli.

Benetako gertaerak dira oinarri. 1966. urtea. Zu non zinen?

Ni Arantzazun Teologia ikasten hirugarren ikasturtean. 21 urte inguru. Maroto Olitetik etorri berria zen lehen ikasturtea hasteko. Oliten filosofia ikasten zen. Lehendik ere sartzen ginen Arrikrutzera, baina ez bukaeraraino. Hiru orduko tartea bakarrik ematen ziguten libre. Arrikru-

tzek bakarrik zazpi kilometro ditu galeria guztiak kontuan hartuta, eta Gesaltzako leizearekin lotune bat ere badu. Bien artean sistema karstiko bat osatzen dute kasik hamabost kilometrokoa. Izugarria da. Hor ibiltzen ginen askotan, baina Maravillas izena duen gelara iristen ginen; gauza zoragarriak ditu. Hortik aurrera, Aranzadi gela zegoen; 100 bat metro luze eta 50 metro zabal eta punturik altuenean 40 metro. Izugarria izan behar zuela bai, baino sekula ez ginen iristen.

Espeleologiarekin zein lotura zenuten garai hartan?

Batere. Afizionatu sinpleak ginen. Gu Arantzazun basapizti txikiak ginen, eta ez dakit nolatan bizirik ateratzen ginen handik. Hango amildegi eta harkaitzetan ibiltzen ginen, horixe, basapiztiak bezala. Mendian asko ibiltzen ginen, eta gero leizeetara zaletu ginen. Aranzadik *Munibe* izeneko aldizkaria argitaratzen zuen eta hori hartzen genuen. Bertan agertu zen Aranzadi sala, horra inoiz iritsi gabeak ginen eta gogo piztu zitzaigun.

Zer gertatu zen 1966ko arratsalde hartan?

Sei orduko tartea genuen, eta suziak egin genituen egunkari zaharrek eta elizan egiten ziren sobratutako kandela muturrekin. Txapazko pote batera bota, hura berotu eta argizari likido hori egunkarien gainera bota eta azkar-azkar bildu eta metro erdiko zuziak egin genituen. Horrela hamasei zuzi prestatu genituen; bakoitzak ordubete bat irauten zuen. Nahikoa geneukan, eta horrekin sartu ginen Maroto eta ni.

**Helburua Aranzadiko galeria-
ra iristea zenuten.**

Bai, baina sei ordu genituenez beste alderdi politak ere ikusi nahi genituen.

Aranzadira iritsi eta zergertatu zen?

Aranzadira iritsi baino lehen zulo beltzak ikusi genituen. Gu sokarik gabe joaten ginen, eta gure kezka nagusia putzu horietara erortzea zen. Maravillas gelatik aurrera, hau da, batez ere ezagutzen ez genuen gelatik aurrera, oso kontuz eta zuzia beti lurrera begira zulo beltzik agertu ez zedin. Lurrera begira konturatu gabe pasa egin genuen Aranzadi gela, eta bukatu ostean uste genuen Aranzadi gela genuela aurrean. Aurrera eta aurrera jarraituta aurkitu genuen hezur-dura handia, eta guk hartza izango zela pentsatu genuen. 17:50ak ziren, eta guk 20:00etarako korian egon behar genuen.

Ateratzen hasi eta...

Buelta eta buelta, inon ez genuen topatzen irteerarik. Ezin irten. Izerdi hotza, dardara gorpuztean, beldurra, eta sentsazio ezkor guztiak batera bildu zitzaizkigun. Oso-oso urduri jarri ginen. Atsedean hartzea erabaki genuen. Iluntasun absolutua eta isiltasun izugarria. Ur tantak. Misterio ikaragarria, baina baita beldurra ere. Hotsen haluzinazioekin hasi ginen...

Nori zuzendua idatzi duzu?

Nire kezka hori izan zen. Noretzat idatziko dut, ume txikienez bakarrik? Ume txikienez asko dauzkat idatzita eta helduentzat ezer gutxi. Historia hau gehiago ikusten nuen helduentzat. Kezka izan nuen. Modu nahiko errazean idatzi dut. Euskarara txukuna eta aberatsean, baina zailtasun handirik sartu gabe aditzetan, hitzetan eta adierazpenetan. Erraz irakurri eta jarraitzen da liburuaren harria, eta DBH 3 edo 4. mailatik hasita, batxiler mailan edo helduek ere gustura irakurri dezakete. Azala Jabier Erostarbe oñatiar marrazkilariak egin du.

**Oñatin aurkeztu zenuen liburu-
a, eta bertako udalak argita-
ratu du.**

Oso harreman ona dut aspalditik. Leize-zuloa inauguratu baino lehen ere, obrekin hasi behar zutenean deitu ninduten eta elkarriketa luzea izan genuen nik nekien guztia kontatuz. Toki polita da egina dagoena, baina toki-rik politenak oso zaila dira bisitatzeko. Arrastaka joan behar da.

Fikzioa ere sartu diozu.

Pixka bat sartu diot. Kapitulu bat edo beste fikziozkoa da, eta erabat asmatua. Antzeko gauza bat gertatu zitzaigun, baina ez garai horretan.

**Pertsonai ezberdinak ere
agertzen dira. Nazabal, esate-
rako.**

Nazabal berastegiarra oso berezia da, eta Maroto berak ere esaten du. Arantzazun ibili ginen guztiontzat ez dut esango estralurtarra denik, baina gutxi gorabehera horrelako zerbait. Izugarri indartsua zen, eta Oñatin ere erraldoi baten moduan imajinatzen zuten. Baina txikia da, zabal eta gihar hutsa; izugarriko indarra eta erresistentzia ditu. Aizkorria eta gu baino ordu erdi lehenago igotzen zen. Mendira joaten zen bakoitzean, leize-zuloan gu salbatzeko erabili zuen adarra eramaten zuen.

Liburua non eskuratu daiteke?

Oñatiko turismo bulegoan. 943 783 453 telefono zenbakian edo turismo@onati.eus helbide elektronikoan eskatuta.



Euskaldunek egunerokoan behin baino gehiagotan bizitzen dute estres linguistikoa. I. TERRADILLOS

Euskaldunen bizi kalitatea hobetu nahian, ahaldunduz

Galtzaundi Euskara Taldeko Imanol Artola teknikariak estres linguistikoa arintzeko talde ikerketa egin du

Eneritz Maiz Etxarri

Estres linguistikoa nola arindu aztertzeko talde ikerketa egin du Galtzaundi Euskara Taldeko Imanol Artola teknikariak. Ikerketarako gertuko jendea bildu du, «euskal kontzientziatuak eta estres linguistikoa pairatzen dutenak» nahi baitzituen. «Oso-oso gertuko jendearengana joan naiz. Sei pertsona izan dira, eta bat edo bi kenduta Galtzaundirekin harreman estu samarra dutenak izan dira. Eta besteak ere banekien estres linguistikoa zutela», esan du Artolak.

Bost aste eta sei saio egin dituzte, eta lau zailtasun edo arrazoi topatu dituzte: ezezagun bat hizketan hasi eta gaztelaniaz ari-tzea, horri euskaraz erantzutea; hizkuntza ohiturak aldatzea; bostere posizioan egotea eta ulermen zulatua dutenen kasua, hau da, ezagun edo ezezagunekin, baina ondo ulertzen ez dutenean euskaraz egitea.

Astelehen arratsaldero Galtzaundi elkartearen bertan elkartu dira. Ikerketaren nondik norakoa azaldu, eta lehen egunean bakoitzak bere estres linguistikoa kokatu behar izan zuen. Lanean,

lagunekin,... eta kasu asko izanez gero, batzuk aukeratu zituzten helburuak jartzeko. Beti ere, errazenetatik hasita.

Astero, hasteko teoria labur bat azaltzen zien Artolak taldeko kideei, eta gero bakoitzari hitz egiten uzten zion, eta aurreko astean bizi izandakoa kontatzen zuten. Idatziz edo audio bidez erregistratu zituzten bizipenak. «Elkartu, bakoitzak berea kontatu, hurrengo asterako helburuak jarri eta etxera». Ordu eta erdiko saioak egin zituzten.

ELKARTZEAREN GARRANTZIA

Artolak sei kideko taldea osatu bazuen ere, zehaztu du guztiek ezin izan zutela astero azaldu: «Horrek berak, oso ondo demostratu dit taldean elkartzeak zer nolako garrantzia duen», argitu du. «Taldera gutxien agertu diren horiek dira urrats gutxien eman dituztenak. Aldiz, maiztasunez joan direnak lehenengo astean jarritako helburuak baino gehiago lortu dituzte».

Artolak Gemma Sangines izan du tutore ikerketa egitean: «Telp tailerrak-eta beraiek asmatuak dira, eta egunero estres linguistikoa pairatuz gero, bizi kalitatea

jaisten duela diote». Pertsona batzuk egunean hogeitaz bizi dezaketela kontatu du: «Autobuse-ra sartzean, denda batean, lankideren batek euskara ez du hitz egiten baina ulertzen du eta nahi diozu euskaraz egin baina ez zara ausartzen...».

Galdera luzatu du: «Beraien bizi kalitatea hobetu ahal genezake estres linguistikoa gutxitzten baldin badugu?». Horri tiraka hasi zen ikerketa gauzatzen.

Euskara elkarteetan eta gizarte mugimenduetan orain arte beti lana gizarteari eragiteko egin dela argitu du. «Inguruari eragiten saiatzen gara, baina eskatzen dugun hori zilegi al da eskatzea? Hor konturatu nintzen estres linguistikoa dudala, eta gizarte eragile moduan akuilu lana egin beharra daukagu, baina agian hobe genukeela jendea etengabe eskatzen aritu gabe, gure barruak goxatu, eta hori ere egin beharreko lan bat ote den begiratzea». Orain arte euskara elkarteetan ez da egin, beste gizarte mugimendu batzuetan edo beste terapia batzuetan egin izan den moduan: «Elkartu eta gure arazoan inguruan hitz egin, eta hori izatea helburua».

«Nahiz eta toki euskaldunean egon ez gaude estresik gabe»

IMANOL ARTOLA ARRETXE
GALTZAUNDIKO TEKNIKARIA

E. Maiz Amezketari

Estres linguistikoa gaineko talde ikerketa egin ostean, Imanol Artolak atera duen ondorioetako bat izan da taldean elkartzeak asko lagundu diela parte hartzaileei, batez ere, «norberak kontatzea baino interesgarriagoa izan baita besteek esaten duten hori norbere emozioekin barneratu eta ulertzea».

Zer da estres linguistikoa?

Hitzak berak esaten duenez, estresetik badu zerbait, beraz, ona ez da. Linguistikoa denez badakigu hizkuntzarekin lotura duela. Estres linguistikoa da zuk ez jakitea zein hizkuntzatan hitz egin behar duzun momentu horretan. Elebakarrei, hau da, hizkuntza bakarra dakitenei ez zaie gertatzen, eta ez dute estresik. Beti hizkuntza horretan egingo dute. Euskaldun guztiok, ordea, bi hizkuntza behintzat badakizkigu. Agian, egia da, estres linguistikoa Amezketan, Abaltzisketan,... herri euskaldunetan txikiagoa izan daitekeela, eta herri erdaldunetan handiagoa. Esaterako, denda batera sartu eta iruditzen bazaizu, pareko dendariak jakingo ote duen edo ez euskara. Zalan-tza txiki hori da estres linguistikoa. Zalan-tza egiten dugun aldiro, nolabait, ez gaude hain eroso eta horri deitzen zaio estres linguistikoa.

Nolatan egin duzu ikerketa?

Tolosaldetik ateratzen baldin bagara guztiei iruditzen zaie hemen erabat euskaraz egiten dela. Iruditzen zaie Amezketan gaztelaniaz ez dugula hitz egiten kalean, eta ez da egia. Euskaraz ez dakitenak herri guztietan daude. Nahiz eta toki euskaldunean egon ez gaude estresik gabe.

Ahalduntze prozesuan dauden euskaldunak taldean biltzeak estres linguistikoa murriztea dakar?

Gure kasu partikularrean horrela gertatu da. Ikerketa bat zen, baina ni gizarte mugimendu batean nabil eta batez ere gizarte mugimenduen alorra interesatzen zait. Ikerketa egin dugu, eta orain, gizarte mugimendu baten urteko jardunera nola ekartzen dugu? Hori da niri interesatzen zaidana. Eta hor ikusiko dugu ea beste taldeak ere ahalduntzen dituen. Beste ahalduntze prozesu batzuk egin dituzten talde fe-



minista batzuekin-eta ari naiz. Eta orain hau nola eramaten dut herrietara? Bere horretan eramanda ez du ahalduntzea ekarriko. Talderen bat sortuko bultz, talde hori nola antolatu beharko genukeen aztertzen ari naiz. Nik ez dut psikologiarik ikasi, eta aditurik gabe, taldean elkartuta posible al da ahalduntzea?

Aurrera nola egin aztertu behar, beraz?

Galtzaundi gizarte mugimendu bat den neurrian, zailena egiten ari zaidana da taldeak irekia edo itxia izan behar duen erabakitzeari. Irailetik ekainera, demagun, konpromisoa hartu behar du talde horretako jendeak maiztasun jakin batekin elkartuko dela. Edo irailean hasiko gara batzuk eta abenduan sartu dadila nahi duena? Talde itxi batean gidari batekin gertatu da, baina hau herrietara eramaten denean, horrek esango digu benetan ahalduntzea gertatzen ote den edo ez.

«Lehenik norbanakoak ahaldundu, ondoren, aktibista biltzeko». Helburuetako bat hori litzateke?

Bai. Galtzaundik bere burua elikatu nahi du eta nahi ditu Galtzaundi kide gehiago, eta nahi ditu herrietan militante gehiago. Baina estres linguistikoa gainditzten duen bat oraindik eta aktiboago bilakatuko da? Edo deserosotasun horrek garamatza aktibista izatera? Feminismoari zeharka begiratuta, nik esango nuke ahalduntzen dena gero aktiboago ikusten ote dudan. Eta gizarte mugimendu bat garen neurrian, ikusiko bagenu lehenengo norberak bere buruarekin lan egindakoan gero gizarteari emateko prest dagoela, orduan, euskara elkarteak abiatze prozesu bat behar duenean, badakigu, lehenengo etxeko lana euskara elkarte horretako kideak ahalduntzea dela, eta gero eragingo dute gizartearen. Eta ziurren biak batera joan beharko dute.

Gaur hasiko da kulturaldia

‘Maite ditut gure bazterrak’ erakusketarekin ekingo diote Kulturaldiari Lizartzan; ‘Cromlech’ antzerkia ikusteko izena eman beharko da, aurrez, udaletxean

Irati Salzar Artola

Gaur hasi eta abenduaren 3ra bitarte ospatuko dute Kulturaldia Lizartzan. Urtero moduan, Kalamatrike euskara eta kultura taldeak eta Lizartzako Udalak antolatuko dute kulturaz gozatzeko egitaraua. Gaur bertan emango zaio hasiera, erakusketa baten aurkezpenarekin: *Maite ditut gure bazterrak* izeneko erakusketa jarri du Iñaki Balerdi *Naparrak* udal aretoan, eta 20:00etan egingo dute irekiera ekitaldia. Garazi Esnaola herritarrek har-

tuko du parte aurkezpenean, pianoaren laguntzarekin.

Ostegunetik igandera, aste honetan eta hurrengoan izango dira jarduerak, haur, gazte eta helduei zuzenduta. Kontuan izan, azaroaren 28an izango den *Cromlech* antzerkira joateko izena eman beharko dela aurrez udaletxean.

Kulturaldiari amaiera Euskararen Nazioarteko Egunean emango zaio, abenduaren 3an. Bertso poteoa egingo dute, 19:30ean hasita, Oihana Iguaran eta Haritz Mujika bertsolariekin.



«Urte guztiko lanketa izaten du udan biltzen den uztak»

ENEKO SOLANA BASERRITARRA

I.S.A.

Lizartzako Kulturaldiaren barruan hitzaldia eskainiko du Eneko Solana legazpiarrak. Itsasoko Hariztizabal baserriaren ardura hartu zuen duela bi urte eta erdi, eta besteak beste, sagarrondoak ditu baserrian. Sagarrondoan urte osoko zainketaren inguruan ariko da, azaroaren 25ean, 18:30ean, Lizartzako udal aretoan.

Hitzaldirako guztia prest?

Bai, apunteak osatzen ari naiz. Bi urte eta erdi dira baserriko erreleboa hartu genuenetik, eta nik orain arte bizitu dudana kontatzeko prest nago.

EGITARAUA

Azaroak 18, gaur

20:00. *Maite ditut gure bazterrak* erakusketa, Iñaki Balerdi *Naparra*-ren eskutik, udal aretoan, azaroaren 26abitarte. Aurkezpena, gaur, Garazi Esnaolak pianoan lagunduta.

Azaroak 19, bihar

19:00. *Ekologista naiz, baina...* hitzaldia, Gorka Egaren eskutik, udalean.

Azaroak 20, larunbata

17:00. *Elefante eta bere lagunak*



‘Naparra’-ren inguruko dokumentala ikusteko aukera, azaroaren 26an. ATARIA

ipuin kontaketa, udal aretoan.

17:45. Trentza tailerra.

Azaroak 21, igandea

16:00. *Jokai* jolas kooperatiboak, herriko plazan.

Azaroak 25, osteguna

18:30. *Sagarrondoan urte osoko zainketa* hitzaldia, Eneko Solanaren eskutik, udal aretoan.

Azaroak 26, ostirala

19:30. *Bolante baten historia* doku-

mentalaren proiektzioa, zimiterioan.

Azaroak 27, larunbata

22:00. Kilimak taldearen kontzertua, zimiterioan.

Azaroak 28, igandea

19:00. *Cromlech* antzerkia, udal aretoan.

Abenduak 3, ostirala

19:30. Bertso poteoa, Oihana Iguaran eta Haritz Mujika bertsolariekin, herriko ostatuan.

Kaletik baserrirako bidea egitea erabaki zenuen.

Familia proiektu bezala hartu genuen, animatu egin nintzen erreleboa hartzera. Legazpiko kontsumo taldearen bidez erosten genien ogia Xabi Akizuri eta Marilu Gardokiri, eta txikitan, beraien baserrian, Hariztizabalen, ogi eta gailera ikastaroak jaso nituen. Ondoren, interes batekin gerturatu ginen baserrira eta poliki-poliki erreleboa lantzen joan gara.

Ogi eta fruta zaintza ekologikora bideratu duzue jarduna.

Bere garaian, Xabik eta Mariluk 1.000 sagarrondo inguru landatu zituzten, 30 mota ezberdine-

takoak gutxi gorabehera. Guztiak mahaiko sagarrak dira, jatekoak. Ekaina inguruan San Juan sagarra biltzen hasten gara eta tartean beste sagar motak bilduz, Errezil sagarrarekin azaro inguruan amaitzen dugu.

Urte guztian zaindu behar izaten dira ordea. Hortik doa zure hitzaldia?

Fruta bere garaian biltzen duzu, baina zainketa behar dute gero. Esaterako, kiwiak zainketa handia behar du, baina, sagarrondoei Euskal Herrian, normalean, ez zaie kasu berezirik egiten. Gure sagarrondoei bai, gureak txertatuak dira, altura baxukoak. Lantekarako ere errazagoa da, baina

zaintzea eskatzen dute. Neguan kimaketa dela, udaberrian sasiz garbitzea dela, bakanketa dela, aleak ere kentzen ditugu gero ale tamaina handiagoa biltzeko. Urte guztiko lanketa izaten du udan biltzen den uztak.

Lizartzan gomendioak eman-go dituzu?

Nik daukadan esperientziatik ariko naiz. Urte osoko lanketaren nondik norakoak azalduko ditut, kimaketa nola egiten dugun, erabiltzen ditugun trikimailuak, bakantzearen garrantzia eta orokorrean sagarrondoaren inguruan nik orain arte ikasi dudana azalduko diet bertartzen direnei.

Hilberriak eta urteurrenak

Gurutze Manterola Azpiazu

Ignacio Uriaren alarguna



Herenegun hil zen, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Haren seme-alabak: Iñaki, Marian (†), Gurutze eta Karmelo; bilobak: Ainara, Unai, Eukene; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte! GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ZARAUZKO ANDRA MARI ZERURATZEAN parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

ZARAUTZEN, 2021eko azaroaren 18an

Oharra: Hilbeila ZARAUZKO Beilatokian izango da, gaur, 09:00-11:00 artean.

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ATARIA jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Gipuzkoako Pilota Txapelketako finalak

PILOTA // Eskualdeko pilotariak aurreko asteburuan jokatu diren eskuz binakako Gipuzkoako Txapelketetako ia final guztietan nagusitu dira. Nagusien bigarren mailan, Tolosa 2-k (Ander Perurena-Martxel Iztueta) 17-22 galdu zuen Legazpiren aurka. Nagusien lehen mailan, Behar Zanak (Xabier Urbietak-Jon Urbietak) 22-19 irabazi zion Lapke 1 bikoteari. Nagusien ohorezko mailan, Tolosak (Eneko Labaka-Julen Aizpuru) 9-22 irabazi zion Tartaloetxeri. Bestalde, igande honetan, Hernanin 17:00etan hasiko den jaialdian, bigarren partidaren gomazko paleta nagusien lehen mailan, finala jokatuko dute Su-Berri 1 bikoak (Leire Galdos-Maider Mendizabal) eta Hernanik.

Sokatira taldea bigarren, 4x4koan

IBARRA // Euskal Herriko Sokatira Txapelketari hasiera eman zitzaion asteburuan, goma gaineko 4x4 modalitatean. Gizonezkoetan 310 kiloko maila jardunaldi batera jokatu zen berderatzi talderekin eta Ibarrek zilarrezko domina lortu zuen. Beti Gazte izan zen irabazlea. Datorren larunbatean, Antsoainen (Nafarroa) jokatu da 4x4 modalitateko emakumezkoen 250 kiloko finala. Bertan izango da Ibarra taldea eta zazpi aurkari izango ditu.

Negu Traileko izen ematea itxita

BERASTEGI // 2022ko otsailaren 6an egingo da hurrengo Negu Trail mendi lasterketa Berastegin. Izen ematea zabaldu eta berehala, egun baten bueltan, bete dira parte hartzeko plazak, eta baita itxaron zerrenda ere.

Iker Elizegi, promozio mailako binakakoan

ASTEASU // Iker Elizegi Baiko enpresako pilotariak Binakako Promozio Mailako Txapelketan parte hartuko du. Asteasuko atzelariak Bakaikoa II.a izango du aurrelari moduan. Asteburu honetan jokatu dute lehen jardunaldiko partida, larunbatean, Larrazabal-Salaverri II.a bikoaren aurka. Neurketa Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu da eta jaialdiko lehenengoa izango da.

«Ilusio handiarekin» ariko da Irazu finalean

Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiaren finala jokatu da igande honetan, 12:00etan hasita, Bilbao Arenan

A. Imaz / I. Garcia Landa
Zizurkil

Aizkolari onenen final nagusian lehiatzeko txartela lortu zuen Jon Irazu zizurkildarrak, eta, beraz, igande honetan Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiaren finalean izango da, 12:00etatik aurrera, Bilbao Arenan. «Ez nuen espero sailkatzea», esan du Irazuk. «Inoiz baino gutxiago entrenatuta nengoen eta ez da urte ona izan niretzat. Baina fresko hasi nintzen kanporaketan, eta azkenean finalerako sailkatzea lortu nuen».

Bere buruari finalean egotea ez ziola exijitu eta hori izan zela azkenean txartela lortzeko gakoetako bat azaldu du zizurkildarrak: «Presiorik gabe joan nintzen, eta horrek plus bat eman zidan. Orain finalean lanak bikoitzak dira eta horrek sufimendu bikoitza suposatzen du».



Jon Irazu, aurtengo Amabirjinaren egunean, Zizurkilgo Intxaur frontoian. I.G.L.

Finalaren garrantzia nabarmendu du Irazuk: «Urteko hitzordu garrantzitsuena izaten da aizkolariarentzako eta ilusio handiarekin joango naiz, nahiz eta asko sufrituko dudan eta ez dakidan zer maila emango dudana».

Prestaketarena ere mundu bat dela gaineratu du: «Urte guztian prestatzen aritu zaitezke eta gero

gertatu daiteke eguna iristerakotan gauzak nahi bezala ez ateratzea. Eta, bestalde, presiorik gabe joan, gutxiago prestatuta eta freskoago, eta gorputzak erantzutea». Bestalde, kanporaketako erreferentziek finalerako ez dutela balioko esan du Irazuk: «Lana bikoitza da eta denak elkarren aurka ariko gara».

Herri kirol lehiak Larraulen eta Zizurkilen

Erredakzioa Larraul/Zizurkil

Larunbatean herri kirol lehiak bere lekua izango dute eskualdean. Zizurkilen Harri Handien Gipuzkoako Txapelketa izango da jokoan. Larraulen, aizkolariak, harri-jasotzaileak eta trontzalariak ariko dira lehiatzen.

Harri Handien Gipuzkoako Txapelketa 18:00etan hasiko da Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan. Bertan harri-jasotzaile hauek parte hartuko dute: Iñigo Eizagirre, Jokin Eizmendi, Aimar Gallarraga, Aimar Irigoien eta Jon Unanue. Eta ondorengo harriekin egingo dute lehia, bakoitzarekin bi minutuz arituz: 200/175 kiloko laukizuzena, 200/175 kiloko zilindroa, 150 kiloko kubikoa eta 125 kiloko bola. 200 kiloko laukizuzena aukeratuz gero, zi-

lindroa 175 kilokoa izango da, eta bestela alderantziz. Maila handiko txapelketa izango da, Euskal Herrikoan ere parte hartzaile berak izango baitira. Euskal Herrikoan hiru minutuko saioak izaten dira harri bakoitzarekin.

Bestalde, Larraulgo frontoian 16:30ean hasiko da herri kirol lehia, eta batetik Urrezko Aizkolariaren Koparen kanporaketa egongo da jokoan, hamabi aizkolariaren parte hartzearekin. Bestetik, Binakako Harri-jasotze Txapelketa egingo da, Julio Jimenez eta Sergio Mielgo bikotea, Iraitx Arruti eta Xabat Olaizola bikoaren aurka. Azkenik, Emakumezkoen Trontzalari Txapelketan Amaia Mendinueta eta Iraide Gezuraga bikoak Itxaso Onsalo eta Leire Astiazaran bikoak izango du aurkari.

Tolosa CF-ko hemeretzi atleta gazte, Espainiako Txapelketara

Erredakzioa Tolosa

Donostiako Nazioarteko Krosean Tolosa CF-ko atleta gazteek lortutako emaitzen ondoren, hemeretzi atleta joango dira igandean Sevillan (Espainia) egingo den Espainiako Kros Txapelketara. Donostiako Krosean, batetik, Manex Civicok lehen postua lortu zuen 18 urte azpikoetan eta Ibone Ezeizabarrena, Ane Martin eta Teresa Ibarbia, bigarren, hirugarren eta laugarren izan ziren maila horretan. Espainiako Txapelketara 16 eta 18 urtez azpiko mutil eta neskak joango dira.

Donostiako Krosean, maila absolutuan, Izaro Perurena 17. izan zen, Aitor Regillaga 27. eta Iker Martinez 70. Alebin eta infantil mailetan, Tolosa CF-ko 50 atletak parte hartu zuten.

Lana eta lana



Aulkitik

Izaro Goenaga

Tolosa CF, 1. Maila Nazionaleko jokalaria

Aurreko asteko garai-penari esker, sentsazio onekin ekin genion asteari. Aste berri bat, partida berri bat, Santanderko Racing B zen gure hurrengo aurkaria.

Larunbat arratsaldean iritsi eta oraindik eguna argi zegoela hasi zen partida. Lehen zatia nahiko parekatua izan zen, beraiek aukerak izan zituzten baina markagailuari eutsi genion atsedendira iritsi arte. Oraindik bigarren zatia genuen aurretik, gure aukerak sortu eta golak sartzea lortu ahal izateko.

Zoritxarrez, 57. minutuan beraien lehen gola iritsi zen. Nahiz eta markagailuan atzetik joan, gure jokatzeko erari eutsi genion aukera ezberdinak sortuz, baina ez zen posible izan gola sartzea... Minutu batzuk igaro ondoren beraien bigarren gola iritsi zen 74. minutuan eta partida 0-2ko markagailuarekin amaitu zen.

Partida irabazi ez badugu ere, sentsazio onak ditugu taldean; izan ere, joko ona egiten ari gara eta iritsiko da berriz ere garaipena. Asteburu honetan Tajonareko zelaia bisitatuko dugu, Osasuna B aurkari izanda. Egurra ekipo!

BILLABONA FKE	
Arratzain futbol zelaia	
INFANTIL NESKAK Larunbata 20, 10:00etan BILLABONA F.K.E. GOIERRI GORRI F.K.	OHOREZKO INFANTIL MAILA Larunbata 20, 12:00etan BILLABONA F.K.E. BEASAIN S.D.
OHOREZKO JUBENIL MAILA Larunbata 20, 16:00etan BILLABONA F.K.E. TOLOSA C.F.	INFANTIL TXIKI MAILA Igandea 21, 15:30ean BILLABONA F.K.E. AIZKORRI GOIERRI F.T.
Billabona Fke	



OSTEGUNA, 2021EKO AZAROAK 18
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 18

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Kolorez Jantzia ipuin kontaketa musikatua, 17:00etan, liburutegian.

Aduna. Solasaldia Jokin Altunare pilotariarekin 17:30ean, elizan.

Tolosa. Palabras dislocadas erreztaldia musikatua sexu-abusuen inguruan, 18:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

Berastegi. Iñigo Aranbarriren Munduko tokirik ederrena aztertuko dute irakurle klubean, 18:00tan.

Berastegi. Bingoko sari berezia, Gaztainondo elkartearen 18:00etan, eta Etxean energia aurrez dezakezu erosotasunik galdu gabe! tailerra 18:30ean, Argitu programaren eskutik, erabilera anitzeko gelan.

Amezket. Koldo Alijostes amezketarraren Bizitzak liburuaren aurkezpena, 19:00etan, kultur etxeko areto nagusian.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina.

15:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arroza sareko irratiaren artean eginiko magazina.

20:00. Musikasi. Musika klasikoa, Karmen Sanzen eskutik.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

09:30. Gaurkoan Tolosaldeko

15:00. Elkarriketap (Aiora Mujika)

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Pintxo-Pote (Aitor Aldalur)

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Jesus M. Etxebeste Elozegi. Gernikako Arborearen Lorategiak, 3. 943 65 10 40

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro egonkor eta saioa. Goizean hodei batzuk agertuko dira zeruan, baina ez dute inolako garrantzirik izango. Egurditik aurrera hodei hauek desagertu eta eguraldi eguzkitsua izango dugu arratsalde osoan zehar. Haizeak ipar-ekialdetik ahul joko du eta tenperatura zertxobait igoko da, 12-14 graduan joz goia.



Bihar. Eguraldi ederra izango dugu bihar. Goiz hotz baten ostean, goizean bertan behe-lainoa agertuko da, baina jaso ostean, zerua ia erabat oskarbi egongo da eta giro eguzkitsua zoz gatu ahal da egun osoz. Haizeak aldakor joko du, goizean tarteka hego ukitu batekin eta arratsaldean ipar-ekialdeko ukitu batekin. Tenperatura igo eta 14-16 gradu bitartean joko du goia.

Tolosaldeko Atariak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Elkar ezagutzeko aukera izan dute

SOS Arrazakeria elkarteak antolatzen duen Bizilagunak egitasmoaren bazkariak egin zituzten iragan igandean; eskualdean lau otorduren bueltan bildu dira

Imanol Garcia Landa Tolosa

Garazi Eiguren tolosarrak bigarren aldiz parte hartu du dinamizatzaile moduan. Duela pare bat urte hartu zuen parte Adunan. «Iaz ere errepikatzeko gogoz nengoen, baina pandemia izatearen ondorioetako bat horixe izan zen, bertan behera geratu zela. Aurten berriro ere aukera izatean, ez nuen zalantzarik egin. Berriz ere oso esperientzia ona izan da, eta hurrengorako ere desiratzen nago».

ZUBI LANA

Egigurenek dioenez, Bizilagunak egitasmoa zubi bat da. «Nire kasuan egunerokotasunean hain murgilduta egonik, gero eta zailagoa egiten zait ingurura begiratu eta harreman sare berriak sortzea. Zer esanik ez, gure bizilagunak jatorriz euskaldunak ez direnean. Niri zailagoa egiten zait beraingana hurbiltzea edo beraiek ezagutzeko aukerak sortzea. Alderantziz ere berdin, beste herrialde batetik etorri den familia bat integratzea pentsatzen dut oso zaila dela gaur egun, eta bizi dugun pandemia egoera bizita, are gehiago». Gaineratu duenez, «oso zubi polita planteatzen du egitasmo honek, gure artean lotu, saretu, ezagutu eta ha-



Garazi Eiguren (ezkerretik lehena) dinamizatzaile lanetan aritu da. ATARIA

rreman berriak martxan jartzeko aukera ematen diguna».

SAHARARREKIN BAZKARIA

Ibarrako bikote baten etxean egin zuten bere bazkaria. «Saharar jatorria duten Adnane eta Nouraren etxean egon ginen. Anoetako Arene izan zen gonbidatua, eta oso giro atseguinean egon ginen. Elkar ezagutzeko aukera izan genuen eta aukera izan genuen baita ere Saharan bizi duten egungo egoera lehen eskutik egiazko informazioa izateko».

Harreman baten hasiera izan daitekeena gauzatu zela esan du Egigurenek, «hori guztia otordu goxo baten bueltan. Beraien tradizioa den cous cous-a prestatu ziguten, Saharan prestatzen duten moduan. Benetan aberasgarria izan zen igandean bizitako esperientzia».

Egigurenek jendeari egitasmoan parte hartzeko gonbita egin dio: «Hasteko, probatzeagatik ez da ezer gertatzen. Garrantzitsua da aukera hori ematea bai bakoitzak bere buruari eta baita besteei ere».

ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM

Atarikideentzat bost sarrera bikoitz ditugu
Sherpa.ai aizkolari xapelketa nagusiko finalerako

Azaroak 21, 12:00etan, Bilbao Arena Miribilla.

Atarikideentzat bi sarrera ditugu
Acunsa Gipuzkoa - Basquet Girona

partida ikusteko
Azaroak 21, 18:00etan, Donostia Arenan.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**